

## FABULAS EN DIALECTO VIZCAINO

---

*Advertencia.* Nuestro respetable amigo y colaborador D<sup>r</sup> R. M. de Azkue nos envía una copia de las fábulas que á continuación publicamos, sacada de un manuscrito de la Biblioteca Nacional de Paris (Colección A. d'Abbadie).

Cree el S<sup>r</sup> Azkue, que el autor de este manuscrito fué el benemérito vascongado Fr. Maleo de Zavala (1), el cual, al hablar *del tratamiento familiar*, en la pag. 166, columna 2<sup>a</sup> de su obra *El verbo regular Vizcaino* dice: «En los escritos jocosos de chistes, fábulas, cuentos, etc. se puede usar con mas libertad y frecuencia, y siempre que se haga con tino, serán mas agradables y graciosos. Nuestra fabulista, D<sup>a</sup> Vicenta Antonia de Moguel ha hecho algun uso de él en nueve de sus fábulas: ojalá que le hubiera dado toda la amplitud de que es capaz el asunto. que así hubieran tenido dichas fábulas un aire mayor de chiste y gracia. Yo tengo formada una pequeña coleccion de doce fábulas ajenas, y veinte y tanta mias, en las que he procurado dar á este tratamiento la estension que le corresponde segun las reglas que llevo ya fijadas».

La presente colección se compone de 35 fábulas y según el s<sup>r</sup> Azkue, una de ellas, la última: es indudablemente posterior á la nota precedente. Al pie de once de estas fábulas dice el compilador: «Moguelena», de Moguel: son las fábulas 3, 6, 12, 15, 20, 25, 28, 30, 31 y 32. Al pie de la 21 dice: *Salaberri-rena*, de Salaberri: después de la 35 se lee *Doña Maria Vicenta Antonia Moguelena*. En todas ellas se emplea el tratamiento familiar.

¿A cuál de los Moguelea se refiere la nota «Moguelena»?

¿A Don Juan Antonio, autor de *Confessio*, ó á su sobrino (hermano de D<sup>a</sup> Vicenta) D<sup>n</sup> Juan José? Indudablemente al primero; por cuanto en la pagina 90 de IPUI ONAC (Donostian 1804) dice D<sup>ma</sup> Vicenta Antonia Moguel, refiriéndose á las fábulas *en verso* que insertó al final de su librito: *Esan nuen len verso ipuizco oiec ez dirala nere burucoac. Pillo andi bat dauca eguinda nere Osaba Jaunuc; ta pillotic artuac dira emen ecusico diran guchi batzuec.* (Dije antes que estas fábulas en verso no son mias. — lit. *de mi cabeza* — Mi Señor tío tiene un montón de ellas: y tomadas del montón son algunas pocas que aquí se verán).

¿Se habrán perdido esas fábulas? ¿Podrá alguno de los lectores de esta REVISTA darnos noticia de su paradero? Si se encontrasen, con gusto las incluiríamos en la presente colección.

Hemos observado que las fábulas del manuscrito de Paris señaladas con la indicación *Moguelena* discrepan, á veces, de las atribuidas á su tío por D<sup>a</sup> Vicenta. Por este motivo añadiremos algunas notas que permitan al lector apreciar las variantes de ambos textos.

J. DE U.

---

(1) Fué natural de Bilbao en donde nació el año de 1777: murió el 6 de Febrero de 1840. (Libro de Becerro del convento de Franciscanos de Zarauz).

# BERBA-AURRECOA

---

¡Ceinbat gauza eguiten dituzan guizonac asco asco uste ez evazanac! ¿Noc esango eustan neuri ipuin-guiñan eguingo nevala? Nic beintzat ez neuntsan sinistuco asco, niretzat nengoalaco ece etzala ori ez ene bururaco, ez ene bici-moduraco. Alan da guzti macal-aldi baten, beste gauzataraco ez nintzanean prestu, eta oëan besteetan baño astiroago egon bear izaten nevanean, ene atseguin garriraco uste ez nevan eguinen oneri eutsi ta ekin (sic) neuntsan, eta neureac gueienac orduanche eguinac dira.

Bein nagusiena eguin ezkerro, eta esan daroagun leguez, lanari zaia kendu ezkerro, erraz izaten da cerbait gueiago aciten: eta guero eguinai escu-aldi batzuc emotea zorra leguez artu doa. Bada nic bere besteac erabili oi daven bidetic eztot urten eta bigun-aldia ezkerro, bat edo beste eguin dot, eta oneec eta lengoac leundu, ta apaindu, eta escuac emon deustezan iñorenak Bizcai-coratu: baita onenbes tegaz (sic) osotu ta biribildu dira orain arguitara ateraten dodazan ipuin mamintsu on onec.

Eguia da guztiac bere escu bete bashen eztireala; eta ecin izan bere, yolas-garriztat, eta tarte-garriztat eguiteco au artu dodan ezkerro, ta ez sailltzat, ez eguneko lantzat. Ogueta bat dira neureac ta amabi besteenac, eta bitzuoc altar yota ogueta amairu guztiac, onei aurretic ganetu yakez Euscaldunen alabantzaac, eztakit nic norenac eta atzetic Peru-gaz Yoanen arteco berbeta eder eracutsi andicoa, D<sup>a</sup> Vicenta Antonia Moguel (sic).

Baakit nic gueure euscaldunac ipuinzaleac direala. Gogoan dot oraindo celan umetan entzun gueroazan aoa zabalic, eta adurra erigula, Peru ta Mariaren ipuin sustraiacoac. Oraingo oneec dira sustrai andicoac, mamiñ ederrecoac, eta on ta onura zabalecoac. Alan balira gueiago.

Nic gura neunkeana da ce, oneetatic bidea artuta, edo ainbagacoan, nic baño buru, gatz, asti ta gogo ohea daucanen batec gueiago ta ederragoac eguin baleguiz. Baita ¿cer dakigu izango bada? Au baño gachagoric icusi da mundu zabalean. Eta iñoc uste baleuke ece cer-eguin au deunguea dala, edo bai beintzat adinona ta alperrena, iracurri begui Evangelio santuan amar doncelleen irudia, Erreguegaz erreteru gaiztoen

artecoarena, bearguinac maztura eroan evazan ugazabarena, eta beste an dagozan ainbeste, eta guero esango deust.

Bitartean barriz iracurri eguizuz ta eguikuz ipuin on oneec: eta alan baderitzazu (sic) buruz artu; eta ceureztat eta besteentzat asco ica-sico dozu cer celan eguin bear dan. Eurac dagoz berba neurtuetan, eta neurri labur-luce, ta guera-aldi era ascotacoetan: eta onelangoac izan daroe berezco gatza, gacigarria ta uya, gogoa yoteco, begizcoa eguitemo ta errazago oratu ta erantsiteco.

### SARREREA

Bizcaico erriétan  
gara euscaldunac (sic)  
eguin daiguzan báda  
euskeraz bersoac  
Ez dogu euscaldunac (sic)  
erdera bearríc,  
bersoac iminteco  
ondo apainduric.

Euskeraz cantatéco  
prest nago ni beti,  
Bizcaltarren leguea  
ez galtzea-gaitic.  
Ecin itzi (sic) guiñaike  
Bizcai-co lurreán  
euskeraz cantatéa  
ondo yacuneán.

### ANCHINACO EUSCALDUNEN ALABANTZAC

Jaunaren legue óna  
euskeran da sendó  
Adan-egánic óna  
garbi eta ondó.  
Gorde izan da bétí  
garbiro fedeá  
baita gueure leguéak  
eta berbeiteá.  
Erbestetar gaistóac  
nai eukezan galdú  
euscaldunac ez-táve  
bururic macurtú.  
Beste erri ascótan  
yarechi-arren au  
eztau-iños gurétan  
canpococ aguintau.  
Alperric gura eban  
Anibal andiac  
ecer-ez-etan euki  
gueure euscaldunac.  
Beste gaztelu бага  
euren besoetan  
coldarturic, lotu zan  
ta ondo benetan  
¿Nun, nun dozu indarrac  
Anibal arroa?  
¿Cec otzitu izan doc  
encarren beroa?  
Martizdi azcarracaz  
burrucatu baaz  
ator bildur bagaric

gudatuten gueugaz.  
Erromatarrac eurac  
datoz asheturic  
zapaltzeco usteaz  
alde au bertatic;  
baya dóaz iguesi  
ondo lotsaturic,  
escu-bete guizonec  
arpegui emonic.  
Augusto Erromaco  
Enperadoreac (sic)  
nai evazan menpetu  
euskaldun zagaiac;  
baya onêc galtzarrai  
erruz eraguinic,  
igues arazo eutsen  
euren muguêatic.  
Andi eguin evazan  
Erroma cendoac  
guretarren biotzac  
bai eta besoac.  
Ez dau gueiago gura  
onêcaz guerraric:  
bake-opaca dago  
ta gogo gogotic.  
Octavianoc bada  
ondo ezagutú  
guere azkartasuna  
eta evan autu  
bakea eskintzea  
baster chiki oni,

beragaz izateco  
 adiskide beti  
 Etzirean amaitu  
 onecaz bacarric  
 gure arerioac  
 datoz erbezteric.  
 Godoac gura leukez  
 gueureac menpetu:  
 Mauru cikinac bardín  
 danac azpiratu.  
 ¿Cer eguin lekikio  
 ainbeste Yenteri?  
 Euskaldunac bacarric  
 ¿Celan eurai yarki?  
 Orregaitiño bere  
 ez dago bildurric.  
 basamendi onétan  
 ondo atonduric.  
 Guizon bacoach dauco  
 bere gaztelua.  
 beragaz daucalaco  
 biotz indartsúa:  
 Erbestetar guztiac  
 urrun ushaturic  
 ichi even erria  
 burua yasoric.  
 ¿Cegaitic derichazu (sic)  
 Ainbeste neke lan  
 euskaldunen artean  
 beti artu yoian?  
 Gordetarren cintzoro  
 Jaunaren fedea  
 gure legue garbiac  
 gueure euskerea.  
 Erroma bildurgarri  
 fede bagacoac  
 nai euscuzan ecarri  
 guzur Jaungoikoak,  
 ezarri buztarria  
 gueure idunetan  
 euskera ta legueac  
 galdu bas artétan.  
 Gueure asaba ónac  
 gauzac igarriric  
 iñosh bétu ez eutsen

besteri bururic.  
 Amar ondo arturic  
 diño: «Lenagó  
 ondatu ta il danoc  
 azpiratu baño».  
 Gueure ezaugarria  
 lentzan Lauburuá  
 orain esaten yaco  
 Curutze santuá.  
 Ishurtzen zan odola  
 au ez galtzearrén:  
 au yagonic, cirean  
 guztiac, gordeten.  
 ¿Eztogu, euscaldunac,  
 lengoen fedea?  
 Aen euskera laúa  
 et'aren leguea?  
 ¿Cer: emetu aldira  
 gutarren biotzac?  
 Baita ascoc berbetan  
 ¿dirudie motzac?  
 Gure asaba zarrac  
 biztu al baleitez  
 semetzat ezagutu  
 naico ezguindukez:  
 ez lotsaz artu naico  
 guindukez umetzat  
 ez badoguz yarraitzen  
 guc euren onotzac.  
 Ea bâ euscaldunac  
 azcortu gaitean:  
 gabiltzan beti zucen  
 ta sendo fedean.  
 Gueure bicierea  
 arteztu bagaric  
 ez dogu icusico  
 iñosh egun onic.  
 Ez alean guc galdu  
 errico leguea,  
 et<sup>a</sup> anchinatic, dogun  
 gueure euskerea.  
 Gogoan beti euki  
 lenengotic oná  
 sartu ez. dal<sup>a</sup> arrotzic  
 aguintetan oná.

---

 IPUINEN AURRECO YAKIN-BEARRA

Eguno eztave  
 abere mutuac  
 ta pizti<sup>a</sup> uzuak  
 eguin barbaric baperé.

Diñogu davela  
 au eta au esan  
 eracusteco orlan  
 Gueuc eguin bear doguna.

---

## IPUIN ONAC

## LENENGOA

*Ama-alaba, cardanchillo eder cantaria miruac ilten icusiac*

Cardanchilloa, emea abian  
egocanean berotzen  
arrautzachuac bera galian (sic)  
aurreco zugatz-to baten  
    canta ta canta  
    dago, eztanda  
    eguin bearrez soñutzen  
Ain tzan ederra luma nabarrez  
ta ori-gorri guztikoz  
ce ama alabac áo zabalez  
ari beguira dagocoz  
    euren centzunac  
    agan echunac  
    dituez pozaren gozoz.  
«Amac nescari». Pocho maitea,  
¿eztantzun aren soñua?  
zoragarria aren samea  
zoragarria cantua.  
    Ay, ce polita  
    gueuc icusi ta  
    yantzunagun chorichua! —  
¡Ay, ce polita! darauntso amari  
nescachi (sic) orrec urturic.  
¡Ay ce ederra!; Ecin gueuc ari  
escu-ezarri, t<sup>a</sup>arturic  
    eron gurera  
    an eukitera  
    caiola baten sarturic!»

Egozan alan ama-alabac  
ero ero choriagaz  
barriz onetan miru izalac  
cerutic yatzirik egaz  
    zart choriari  
    erpac ezarri  
    ta dau iguesten beragaz.  
Eztituz ainbat gauzac baltztuten  
gau ilunaren iluntzac,  
cein da miruac dituz iluntzen  
Ama-alaben biotzac  
    kenduric ari  
    chorichuari  
    ederra — sama — bicitzac.  
Ta guztiz bere { nescac damuaz  
Beren berengui }  
ez evan, ez, asco bear,  
anche eguitemo chorienagaz  
tasca tasca negar negar  
    begui bereac  
    urez beteac  
    damuz biotza samur lar.  
Amac orduan ondu esanezca  
dirautsa bete betean:  
«Aicon, emenche garbiro, nesca,  
emengo poza cer donan:  
    orain biciric  
    puntuco ilic  
gozoac ala parean».

## BIGARREN IPUIÑA

*Zaldi arrea ta asto apala*

Zaldi arroa — bichiz ta cirarrez  
tint apaindua — javea ganean  
eucala yoian — ibilte galantez  
    bere bidean

Onen betea — daroa burua,  
baita an dago — buru erechia  
ce zabal dala... datorco estua  
    bide guztia.

Astoa barriz azur uts, goseti,  
buruz berâric — arrañen azpian  
etorren gueldi — aurreco bideti  
bere andiran.

Zaldito putzac — buru yaguiagaz  
irrintz eguinic — cearca beguira  
bete betean — t<sup>a</sup>abrigu charragaz  
dirautsa «Gira».

Asto icuskí — ta lotsa bâcoa  
niri bidean — ez eguïn aldéra?

Bada osticoz... Ken laster: ken: óá  
bide — munera.

Asto gaishoak — bildurrarren nekez  
daki ez nor dan — ta conor guztziac  
yoanic daucaz — yo baleuan leguez  
oñaztarriac.

Zan andic ara — bularrez idigui  
zaldia, eta — Jaunac satz-lorrean  
galdu zalaco — apaiñac edeki  
t<sup>a</sup> aguindu evan.

Gueror<sup>a</sup> astoac zaldia zamari  
eguinic dacus ta arroa cimaurdun  
eta dirautsa gaistoz macalari  
«agur, o lagun».

Ea, guizona, eguiten badozu  
gueriz apur bat, ez arren arrotu  
nor-nairi berba gozo eguiozu  
ez osticotu.

## IRUGARREN IPUIÑA

*Atso ezain, burua eder eguiten evana*

Atso azal chimur begui gorria  
bizartsu baltza eta sur andia,  
Argal { **macur** } **lauroguei urtecoa**  
          { **erren** }  
et<sup>a</sup> aoan aguin bâcoa.  
Bestetic barriz zan pistaz betea  
ta zuri eucana ullea,  
Beiseñatan cirudian catua  
bizarretan saga.  
Ecin zantar ezainago izanic  
eztau entzun nai alan danic  
Diño: «Cer da au? Betor espillua  
icusteco neure burua».  
Icusten dau bada zucen eguia.  
Ezpillu guzturtia!  
Diño: emon yat barre eguïteco  
eta ez neu nazana esateco  
Dago ezpillu au charto eguinic

ez deust eracusten aguinic.  
¡Guzur uts! ¿Ene matrailla zuria  
non doc? ¿Non azal leun-garbia?  
Ic gau baltz eguiten deustac eguna;  
eguzki arguia iluna:  
bela baltz eperra.  
Ezainduten dob ederra  
nescachi (sic) gazteac dozac zartuten  
gorputz lirañac macurtuten.  
Ausico aut, ausi, osticopean:  
ez aut eukico, ez, echean.  
*Bacocha bici dau bere zoroac  
orishe dirauscu atsoac.*  
*Ez dogu ezautu gura burua  
ez entzun eguia diñonic  
ez sinistu berb' onic:*  
eta ausi nai da espillua.

## LAUGARREK IPUIÑA

*Amarra ta luki miñ-artua,*

Bein aceria  
 plaust yausi zan  
 sasi ganetic  
 eguitean.  
 Jaustec° orduan  
 eutsan eutsi  
 ango azuar  
 gogor bati  
 Ta miñ arturic  
 biraoca  
 asi zan, asi,  
 Cristoc oba  
 «Cein azan gaisto,  
 cital charra!  
 Bere esturan  
 ire eskua.  
 «Ta bein escatu  
 yacanari  
 euc, char, urratu  
 ta eratzi».  
 Arren ta nillac  
 orain, beti

erôngo al ave  
 an ta guzti.  
 Arantzac barriz  
 bake bakez  
 erantzun deutse  
 berba onez:  
 «Ez, ez arrenic  
 niri eguin:  
 ic doc erria  
 eîn bayac min.  
 Ic aitu bear  
 endun ondo  
 nori oratu  
 ez yausteco»  
 «Onic ecingo  
 bategana  
 baoa, ona  
 escatzera  
 ¿Noc doc errua  
 ezpada euc?  
 Ecer erruric  
 Ez yaucat neuc...

## BOSTCARREN IPUIÑA

*Ugazab'andra eraguin-guilleguia, eta nescatilla otsein ollar-iltzallac.*

Eche bateco andrea  
 zan bada guztiz kirmena  
 beguiratua ta mena:  
 berba baten eguillea.  
 Erabillen ac echea  
 larreguiz ondo aitua:  
 bearrean tzan urtua:  
 eta otseinac laneraco  
 ollarrac yo orduraco  
 eguiten eutsen oyua.  
 Nescatillac gogaituric  
 orren gosh yagui bearrez

diño e erdi asarez  
 ¿Cer; ta loa erdituric  
 ta bein ez bein osoturic  
 beti gueuc yagui bearco?  
 Au ta ¿noc aturetaco?  
 Ez-bada: guzurra, abarra:  
 ilgo yonagu ollarra  
 bai, bai gueure bakeraco:  
 Esan ta eguin, ilten dave  
 ta iñoc ez igarteco  
 luki gaistoa yateco  
 eguingo yacala yave

zabalduta, ollar gabe  
 andra ori da guelditu.  
 Nescac pozac artu ditu  
 lo ta lo eguitecoan.  
 Alperric nescac: sasoan  
 andrea oi don iguitu.  
 Ugazab'andrec bada  
 celan eztaucan ollarric  
 amaiketan bagaric  
 ta goishago bear bada:  
 «Mari, diño, ta chagada  
 ordu da: ea ta yagui  
 Nagui zagoce, ta nagui

¿al zagoce icerditan?  
 Dei eguinda, lau orritan  
 yaguico bearco don, Mari.»  
 Aror bada otseinchuac  
 on ecarri bearrea  
 buruari, caltepean  
 parau dituez buruac.  
 ¿Ceinbati onrac, diruac  
 Osasuna izateco  
 eguinac ¡ay! okerreco  
 guztiak deutsez lortuac!  
 Zuc gazachu arazuac  
 munduan ond<sup>o</sup> egoteco.

SEIGARREN IPUIÑA <sup>(1)</sup>

*Andra alarguna ta ollo arrautzaguillea.*

Andr<sup>a</sup> alargunac evan  
 zorionez echean  
 ollo arrautzaria:  
 ta zan icusgarria  
 egunoro ifintea  
 utsic бага arrautzea.  
 Diño bere artean:  
 «Emon yeutxâdanean  
 aldi batez artoa,  
 arrautz<sup>a</sup> egunecoa  
 beti yeustac eguiten  
 ¿Cer, bada, eroaten  
 bayeutsât nic bi bider?

Arrautz' bat ez doc ezer  
 emonic yan aldi bi:  
 eguingo bere noc ni  
 andi tzar biren yabe  
 ¿Celan bada ez yauec,  
 asmatu onangoric?  
 Alan ero eroric  
 guiceadu zan olloa  
 t<sup>a</sup> arrautza batecoa  
 alpertu zan gutzia  
*Beti izan da eguia.*  
*guiegui billatzea*  
*utsean gueratzea.*

## (1) ANDRA ALARGUNA, TA OLLOA

Andra alargunac echean  
 Ceducan zori onean  
 Ollo arrautzaria.  
 Zan bai ecuscarria  
 Egunoro ipintzea  
 Utsic gabe arrautzea  
 Dio pocez bere artean:  
 Ematen diodanean  
 Aldi batez artoa

Arrautza egunecoa  
 Badit beti ipintzen;  
 ¿Cer baldin eramaten  
 Badiot nic bi bider?  
 Arrautza bat ez da ecer:  
 Emanic jan aldi bi;  
 Eguingo ere nau ni  
 Audi biren jabe;  
 ¿Nola asmatu ez duve

Gauza onelacoric?  
 Ala ero eroric  
 Guizendu zan olloa;  
 Ta arrautza batecoa  
 Alpertu zan gucia.  
 Beti izan da eguia:  
*Gueiegui billatzea*  
*Ecer gabe guelditzea*



## Z A Z P I G A R R E N I P U I Ñ A

*Arraintzalle uste utsetacoac*

Arraintzalle cintzoac  
 ibaian traña  
 ezarri evenean  
 artzen arraña  
 pozez alcarri  
 «behar dogu, cirautsen,  
 betet<sup>a</sup> ecarri.»  
 Aldi zanean guero  
 sare leüna  
 atera gura dave  
 dago astuna.  
 Au poz zoroac  
 bir milla arrain bêvéla  
 ta igaroac.  
 Diño: «Ey gazteac  
 gaur bai dirua  
 zorionez yoagu  
 ciur artua!  
 Gaur zaguiari  
 ekin bear yeutsâgu  
 ¡O pozcalari!  
 Datoz gueldi munerantz  
 ta ondo pozic  
 bear lanac eguinic  
 gogo gogotic.  
 Mutilac, ea,  
 lanac yacac dirua  
 onec besteac.

Asten da aguertuten  
 = gueure sarea  
 = aguertu da erdia  
 = urten bestea.  
 Baita? arrâñac?  
 Onêc uretan, eta  
 arri bat trañac.  
 An tzan iluntasuna  
 biôtz-zauria  
 eta pozez len tzana  
 orain yausia.  
 ozta barbaric  
 eguin gura ei eutsen  
 bat besteari  
 ¿Eztacutsu onetan,  
 ene semea,  
 munduaren eguina  
 ta guzurtea?  
 Asco aguindu  
 ta barriz emotean  
 labur guelditu.  
 Jaincoa da bacarric  
 esanecoa  
 bein aguindu davena  
 a emongoa  
 Beste guztiac  
 urre-mendiac esan  
 emon arrac.

*(Continuará).*

# Fábulas en Dialecto Vizcaíno

(JARRAIPENA)

---

## ZORTZIGARREN IPUÍÑA

### *Erbi bicitzeaz gogaituac ta ugarashioac*

Erbi batzuc baten  
 eguinic batzarra  
 «¿ay bada, ciñoen,  
 gueure zori charra  
 Gueu beti bildurrez  
 beti gueu icara  
 bein ez gaituc bake onez»  
 «orrelan ¿nor bizi  
 onen bake galduz?  
 guizonac bateti  
 lakioz eta suz:  
 chacurrac ausica  
 atzean yarraituz  
 otso, lukiac gueu ilca.  
 Alan ibilteco  
 oba yoägu il  
 t'azken emoteco  
 neke ain ugaril (sic)  
 t'ain gogor ganera  
 yatorcuanari  
 gueu ta lanac uretara».

Esan ta eguin doaz  
 urari emoten  
 buruac, itoaz,  
 nekeac itoten  
 Munera aic eldu  
 t'ugarashioac  
 an, plast, cirean mushatu.  
 Aushe icusiric  
 diñoec «gazteac  
 ez gozac bacarric  
 gu nekepecoac.  
 Gayoazan alon,  
 atzera: ta lanic  
 bayoagu, egon, egon.  
*Nekepean danac  
 obeto danari  
 aitu, eta lanac  
 êiten yacoz aci;  
 barriz beguiratu  
 chartoagoari  
 damuac dira laburtu,*

## BEDERATZIGARREN IPUIÑA

*Agure gogaitua ta balbe charra.*

Agureac  
ozta ozta  
eroian egur-sorta:  
ta nekeac  
erasota  
diño «ay, eriotza».  
¿Non, non ago?  
ator laster  
gaisho au eroaten  
nic gurago  
yoat, eder,  
il bere bici bashen.  
Ar'or bertan  
balbe charra  
bere begui aurrean

imini zan  
ta dirautsa  
¿zer guroc nic yaiadan?  
Ez besteric  
(zarrac larriz)  
ezpada yasotea  
au lurretik:  
guero barriz  
aurretic eu kentzea».  
*jceinbat ceinbat*  
*biraoguilla*  
*artaen dituz ipuiñak!*  
*calteren bat*  
*escatuta,*  
*badatos, an negarrac.*

## AMARGARREN IPUIÑA

*Asto iru yabe bata baño bestea deungagoac izana.*

Astoak euan yavetzat  
achulari (*sic*) escu-entsia  
t<sup>a</sup> eguneco yanaria  
urri da astoarentzat.  
Nai leuke onec beretzat  
yango davena ugari  
baya gueure achurlari  
orrec ezteutso emoten:  
t<sup>a</sup> orregaitic eroaten  
dau gosea ondo sarri.  
«Ay, ay, diño ugazabac  
nayaucac beti ni gosez  
asazcaldi on bat pozez  
¿niri nosh elduco yadac?  
¡Ay ta ene gosecadac!  
Nic yanez au bayaroat  
laster eguin bear yoat

emengo egotaldia.  
Yabe escu-ugaria  
¿nic bein izango echoat?  
Guero yaveac, salduten  
deutso lapico-guinari.  
Au barriz zan emolari  
charra: eta ezda urten  
lazeritic, ez kenduten  
astoac gose bicia  
bestetic ortuaria  
iñosh ostu eroiana,  
eztauco, ez, orain yana  
ezt<sup>a</sup> aza baten orria.  
Orregaitic astochua  
ebilen beti ta beti  
nos onen aguindupeti  
ateracoan burua

ta ez bici ain artua.  
 Salduten dau zorionez  
 ed° obeto adinonez  
 ta ¿celango yaveari?  
 Narruguin atsituari  
 nor ilgo eztan emonez.  
 Narru gordinen azpian  
 ed° onduricoen pean  
 egunean egunean  
 dabil yoan etorrian  
 gosez edo yan guichian:  
 ta bildurrez dagoala  
 nos berari bere azala

kenduco deutsan biciric:  
 orregaitic erdi ilic  
 ta icaraz bici dala.  
 Guerora, «au, esan evan  
 contu onac ateraric,  
 ez beste ugazabari:  
 ce banayoac onelan  
 char bat itzi banayevan,  
 besteagaz noc deungago».  
*Bacocha chit ondo dago*  
*Yaunak yamico tokian*  
*agan burua itzian*  
*isango dau obeago.*

## AMAICAGARREN IPUÍÑA

*Guizon escu-etsi lanez betea ta adiskide esan onecoa*

Guizon batec eucazan  
 gauza guztiac  
 salduta, eguin evan  
 urre-opil bat:  
 ta lur azpian  
 sartu evan opila  
 ortu erdian.  
 Egunean ta egun  
 yoian cicotza  
 icusten ondasuna  
 edo biotza.  
 ¡Ceinbat apachu  
 emoten deutsan ari!  
 guero estaldu.  
 Leiotic dacus batec  
 celan urrea  
 darabilen guizonac  
 sartu ta atera.  
 Eta gau baten  
 kentzen deutso cutuna  
 ta eroaten.  
 Oi leguez gosh goshetic

biaraumean (sic)  
 artu nai dau lurpetic  
 escu artean.  
 ¡Damu gorria!  
 dacus ostu deutsela  
 opil Oria.  
 ¡O ceinbat negar garratz!  
 ¡ceinbat ayari!  
 ¡ceinbat garbai eskerga!  
 ta ¡ceinbat larri!  
 Ez dauca onic:  
 ez yan, ez edan daike,  
 eta ez loric.  
 Onelan dabilela  
 igarten deutso  
 lagunak naibagea  
 eta dirautso:  
 ¿Cer doc, guizona,  
 ain ilun ibilteco  
 lengotic ona?  
 Zabaltzen deutsa onec  
 bere biotza

bai esan bere, daven  
damu mingotza.  
«Agertu urrea  
edo il noc damuac  
adiskidea».  
«¿Zer, dirautso lagunac,  
au doc gustia?  
Artu arri bat eta  
egui opila.  
Sartu lurpean

ainbat eguingo deua  
zein da besteac».  
*Cekentzarren caltea  
onetan dago,  
izan gauza, ez izan  
beti deungaro  
Izanda, lana;  
galdurik, damu; ta ez  
bein ondo dana.*

## AMABIGARREN IPUIÑA

### *Ollo soñularia ta lapurrac*

Eche baten lapurrac dira sartu,  
gura dituez basterrac aratu  
goi goitic eta bera.  
Guero bere ez dave ecer atera;  
ollar zar bat bai ¡ce izacaria!  
baya lapurrentzat ona guztia.  
Artu yaiagun au gueure ederra,  
gangargarri, panpar, buru arroa  
lumati, allatsu, lodi, mardo, a,  
guretzat izango dok, gaur eperra.  
¡Gaur bai gure esteguak!  
Alan diño e lapur chancha-gurac.  
Beeroen ollar zarra iltera  
lapicoan egozten imintera.  
Emon eutsan ollarrac negarrari  
biotza biguntzeco lapurrari.  
«¿Cetâco nozue ni? ¡O guizonac!  
ezpadodaz aragui samur onac?»  
Guztia dalperrean  
lapurrac ez dau errukiric arean.  
Ollarrac ekin ta ekia berbera.  
¿Cetâco naroazue neu iltera?  
Artu baninduzue ollaskotan  
samur izango nintzan yatecotan.

Il bedi ollasko bigun gozoa:  
ollar zarra ¡ce yateco zozoa!  
Nacutsue zarturic,  
gogor, gauza-eza eta zailduric.  
Ez naz bici neu iñoren caltean.  
Orduac iragartuten (*sic*) gavean.  
Bici nazala banaz cerbaitaco;  
ilten banozue ez ecetaco.  
Neure soñua da chito artua  
ta iratzartzeco loac artua.  
¡Eguinaren bizarra!  
gangar andiagaz az gangarra.  
Emon doc ilteco erabaguia  
idun ori izateco ebaguia.  
¿Dozala guizonac iratzartuten,  
yagui yitezán gavaz soñututen?  
Ori barriz ¿lapurren aurean?  
Galdua az gaur gueure batzarrean  
orretanche yagoc gure caltea  
t'iretzat, eroa, orain iltea.»  
*Gaistoguilleac eztau nai arguiric  
ezta bere izatea ezauna:  
okerreraco gura dau iluna,  
ta ez eukitea ecuslaririk.*

## AMAIRUGARREN IPUIÑA

*Aceri mats-gurea*

Lukia baten yoan zan mastuira  
 egozanean dingilizka mordak  
 aitu-ezkero diño «¡ay, begira  
 eta, ce onac!»  
 Oraingo onetan, beintzat bear yoat  
 ase ta bete nic sabel gosea  
 ¡O ce eguna, ene mats-mordoac  
 gaur bai neurea!  
 Abiadu da. Guero nondic nora  
 ekingo deutsan mats aec yateco:  
 oraingo saltuca eguiten dau gora  
 aõa artzeco.  
 Guero atzeco oin bien ganean  
 zutunik yarri ta agaitic achina  
 igo nai leuke ¿cer da azkenean  
 ac ez eguina?

Bein eguinari guichi erechiric  
 beste ascotan abantetan yaco  
 indarrac, putzac barriro usturic  
 arrapetaco.  
 Guztiz alperric izan tzan, orrenbat  
 ec° eguin-alac, ta ecin eguinac  
 emen-ezkero, eztau ez lacain bat  
 ostu aguinac.  
 Ostean guero gure lukichuac  
 matsai beguira epe dollorrean:  
 «ez dozac gauza, ez dozac elduac:»  
 esaten evan.  
 ¡Berein onango gizonen artean!  
 cerbaitegaitic buruac urratu,  
 al dana eguin ta ecin davenean  
 achakiatu.

## AMALAUGARREN IPUIÑA

*Catu ariman bildur-eguiac.*

Catu bit  
 ya yanic.  
 burruntzico olloa  
 diñoe  
 ea ete  
 daven yango burdiña.

¿Baleie?  
 Ez dave:  
 bildur arima gauzan.  
 ¿Ceinbatec  
 ez yoec  
 gauzac ebaten alan?

## AMABOSTCARREN IPUIÑA

*Otso gaishotua ta ardi ascoyakina.*

Otsoa dabil basoetan  
 basterrac guztiac galduten,  
 emen ostu bestean ilten  
 yausi da chacurren ortzetan:

Eta aguinca ebaguiric  
 itziten davee gaistoac  
 galduric bere lau zancoac  
 haya orregaitic biciric.

Egun ta egun cerbait da ondu  
 ta estututen dau goseac:  
 ezteutso emoten eizeac  
 ta berarragaz ez atondu.  
 Ardi bat dabil anche yaten  
 «ator ona dirauts<sup>o</sup> otsoac,  
 erruki bear doc gaishoac.  
 Ecardac ura ontzi baten.»—  
 «— ¿Ura nai doc nic ecartea?  
 dirautso urtento ardiac,  
 ez arabil eu egarriac;  
 gosea doc, luki, gosea.»  
 Gura eunke malmutz, garbitu  
 polito polito cintzurra,

t<sup>a</sup>ataraco neure azurra  
 ire aguietan apurtu.  
 Arinic ecin doanean  
 asmadu doc ire egarria  
 et<sup>a</sup> azala errukarria  
 guzur utsa daucac miñean.  
 Ilgo al az, il, orche bertan  
 asco-yakin, char, artosoa.  
 Ez-nachac ni orren zoroa,  
 yausteco eure aguietan.  
*Bai: bacochac gordeburua  
 gaisto deunga guztietatic,  
 ta euren berba leunetatic  
 izan ezdedintzat galdua.*

## AMASEIGARREN IPUIÑA

### *Madrilgo itsu barri zabaltzaillac*

Zan une baten guerra tin itzal bat  
 Españarracaz Frantzesen artean  
 ta ilten even guizon makina bat  
 alcartutean.  
 Izan tzan bada guere malpecadu,  
 Irun aldean atak<sup>e</sup> eskerguea:  
 bioc il asco baita asco galdu  
 batac bestea.  
 Madrilgo cale, plaza, basterretan  
 ebiltzan guero bertaco itsuac  
 paperak saltzen eta zabaletan  
 gueuc eguinduac.  
 Dedarrez bada eta turrunt zarrai  
 ots eraguinic, ciñoen itsuac:  
 Bai: Españarrac deutsez Fran-  
 eyo buruac [ciarrai  
 Baguilearen oguei garreanean  
 Or Irunetic cerchubait arago

bitzuoc ekin eutsen, gueu guinean  
 izan gueiago.  
 Lau milla guizon lurrean echunic  
 guelditu yakez eta bost millari  
 oratu deutse gureac et<sup>a</sup> artunic  
 onantz ecarri.  
 Bertan egoan guizon azartuac  
 dirautso: «Itsu, eta guretatic  
 ¿ceinbat il dozac? ta ¿ceinbat  
 Arren esaguic.» [artuac?  
 Erantzun eutsan gueure itsu orrec:  
 «ori Madril-en eztoac esan bear  
 Paris-co itsuac ebatzico yoec  
 artez, nai ceaz.»  
*Cerbait eguiten gaituezan berbac  
 or darabilguz beti gora-bera;  
 barriz chikitzen gaituen bestea  
 ez bein atera.*

## AMAZAZPIGARREN IPUIÑA

*Osaguilla, gaishoa il ezkerro erremedioa ezan evana*

Medicuac  
 diño bada  
 il tzan gaishoa gaitic  
 «au odolac  
 aterata,  
 etzan ilgo onetatic.  
 Badarantzu  
 an dagoan  
 batec: Au lenagotic

zuc aguindu  
 bacenduan  
 ori zan ondo eiñic.  
*Astoari*  
*garagarra*  
*il ezkerro ondotic,*  
*biciari*  
*zarra zarra*  
*yaten emon bearric.*

## AMAZORTZIGARREN IPUIÑA

*Guizon parrasta ta guizon yakina.*

Guizon parrastac esaten  
 evazan farfulleriac  
 pitean bein, et<sup>a</sup> aciac  
 «Madril-en nic egun baten  
 yente guztizco errematen  
 ta Erregueren aurrean  
 amar bat cana lucean  
 saltutu, t<sup>a</sup> andi chikiac  
 icaraturic guztiac  
 anche guelditu cirean.  
 Cecen bateri Gaztelan  
 adar batetic eutsiric  
 bildots bat leguez gueldiric  
 plaz'erdian euki nevan.  
 Catamotzac eguit' evan  
 Cataluñan calte larchu.  
 Mendiz mendi banoatsu:  
 ta zapotzetic artua  
 dacart errirauzua  
 baita an ito panpartsu.  
 Arrabetean zabalíc  
 ao guztia davela  
 et<sup>a</sup> adurra dariela  
 beguiái eraguin bâric  
 arrituric, ícararic

dagoz yenteac entzuten,  
 ta barriac itanduten.  
 Besteari ez naguitu:  
 t<sup>a</sup> alcarren atzean ditu  
 berbac irabiotuten.  
 An egozanen artean  
 bat zan nonbait arguiago  
 baita cerbait urtenago.  
 Eta guztien aurrean  
 dirautsa onez onean  
 ta cintzo urrengo itzac:  
 «Adiskidea, eguizac  
 emen diñocan gauz'orrêc,  
 eta nic ta beste onêc  
 eu artuco augu aintzat.  
 ¡Ceinbateri onenbeste  
 esan leikion eguiac  
 Buruac parraskeriaz  
 eguin andi naico beste.  
 «Eguin yoat au ta beste  
 Ain uritan en° aldian.»  
 ¿Orain barriz? ¿Gure errian?  
 Epelac, ta gauza ezac.  
 Eguizac emen: ta ecertzat  
 artuco aut icusian.



## EMERETZIGARREN IPUIÑA

*Aztu, besteen gauceen igarlaria, ta bereetan itsua*

Aztu guzurra  
 cartac eyo  
 ta ebaguiric  
 daragoio.  
 Oni ta ari  
 igarriten  
 cer cer (*sic*) etorri  
 bear yaken.  
 dirautsa Atal-go  
 mutilari  
 «I ezconduco  
 az iñondi  
 Nesca aberats  
 cintzoagaz  
 lau milla ducat  
 yaucânagaz.  
 Aganic barriz  
 bost ume eder  
 izango dozac  
 ¡eztoc ecer!  
 Ichas-aldeco  
 andreari  
 «ez bildur izan  
 senarreqic.»  
 Bost ille harru  
 ceur' alboan  
 izango dozu  
 oniñoan

Aurtemin yatzun  
 Habana-tic  
 urten ta dator  
 aberatsic,  
 Onic onean  
 bere nesca  
 larri datorco  
 «Ai andrea»  
 Gure echea  
 suac artu dau  
 sugatetic:  
 gara galdu»  
 Aztuak dana  
 arrituric  
 negarrez diño  
 ta gogotic:  
 «Ene mamarra  
 ast' andia  
 bestena dakit  
 ez nirea»  
 ¡Ceinbat ipuiñac  
 artzen ditu  
 euren gauceetan  
 itsu itsu:  
 ta bestênetan  
 yakin argui  
 cer eguin bear  
 ta cer itzi.

## OGUEIGARREN IPUIÑA

*Catu padarra ta eiztariac*

Anchina erri baten  
 bici zan catua  
 gueldi egon bearrez  
 guztiz gogaitua;

Iguesa artu nai dau  
 ehetic basora  
 igaroten egunac  
 bere gag<sup>o</sup> onera.

Diño: «¿Zer doc gazteac,  
 emen ni sarturic?  
 ¿Nic egoan bear yoat  
 bildurrez beteric?  
 ¿Sucaldera nayoac?  
 Nesca otseguñac  
 neure-ganatzen yozac  
 bere aserreac.  
 Ilinti ta bartzunac  
 yeustazac yaurtuten  
 neure bizcar-azurra  
 asco minberatzen.  
 Au doc emoten yeustan  
 egunec<sup>o</sup> oguia  
 alan artu yaiadan  
 sabaira-bidea.  
 Nayarabildec guero  
 sarri ilariaz  
 lapurreta guztiaz  
 niri egotziaz.  
 Asmu zantar onegaz  
 nayoec zainduten:  
 oramayan okelac  
 yeustezac gordeten.  
 Iñosh iñosh bayoac  
 gure otseguña  
 beste toki batera;  
 baya suguetea  
 chacur baten pecora  
 yeustac ac largatzen  
 itzi nai ez yeustala  
 onec urreratzen.  
 Catuac bear yoec  
 bici ganbaretan  
 billatu yanaria  
 eche sagüetan:  
 suac argaltzen yozac  
 ta guztiz macaldu,  
 alan gueure Mishochu  
 guztia doc galdu.  
 «Au doc nic yantzuadan  
 betico leloa:

guero estaltzen yoec  
 contuz lapicoa  
 arrapau ez yaiadan  
 gueli egosia,  
 ta euren yatécotic  
 ase nic gosea.  
 Egun bakezco бага  
 ¿nor bici onelan?  
 Ez doc enetzat obe  
 igues berealan  
 mendira eguitea,  
 cer yan billatzeco  
 sabel ain mûritua  
 nosbait beteteco?»  
 Catuac asmo ori  
 artu evan laster  
 eizan arrapetaco  
 ollagor ta eper,  
 satitzac, satorrac, ta  
 erbi gaztechuac,  
 birigarro, zozoac,  
 beste chorichuac.  
 Basoan artu evan  
 leku ezcutua:  
 alan dago gorderic  
 gueure bizartsua,  
 cateac egosteco  
 pizti, t<sup>a</sup> egastiai  
 bidea zabaltzeco  
 este chimurtuai.  
 Laster zan bai guizendu  
 Mishochu gueurea.  
 mendian izat eztau  
 echeco gosea.  
 Diño «¿Au yanaria  
 samur gozotsua!  
 Errian bici dana  
 da, bai, zoratua».  
 Catu eremutarrac  
 ez dau nai berarric:  
 ez aran, ez mesmeru  
 ez baso sagarric:

aragui samurretan  
 dago coipeturic,  
 barau tzarra daucala  
 betico azturic.  
 Onelan ebilela  
 pozez zoratuta  
 doacoz eiztariac  
 su-armac artuta:  
 laguntzat davêzala  
 eiza-chacur zûrrac  
 billatu ta ilteco  
 eper ta erbiac.  
 Usainca dabilela  
 chacur bat lurrean  
 beingoan guelditu da  
 satitza aurrean.  
 Dago gueure padarra  
 an ishil gorderic,  
 chacurrac gura eztau  
 alde eguin aric.  
 Eiztariac an dira  
 inguru batuten  
 ollagor eper edo  
 erbiac urteten  
 ete evan sasitico  
 sua eguiteco  
 ilic escuz artuta  
 buryacaratzeo.  
 Ustez uste bâcoan  
 dacusdecatua

sasipe zocondoan  
 guztia sartua:  
 eucazala alboan  
 azurrac ugari.  
 Zala calteguillea  
 trast, eutsen igarri.  
 Chistuz, barrez, biraoz  
 deutsea escuz eusten  
 ta locarri zaillacaz  
 errime lotuten.  
 Esaten bere deutse  
 «¡Eiza-galtzallea!  
 emen galdu bear doc  
 ire bicitzea. —  
 — Guizonak ¿Cer eguin dot?  
 dirautse, catuac  
 aguertu guidazuez  
 neure pecatuac  
 Baldin ceuen laguna  
 neu banaz onetan  
 ¿cetaraco nozue  
 alan castiguetan?  
*Aguintaria bada  
 calteguin andia  
 ¿celan cigorperatu  
 lapurchu chikia?  
 Lapur gaisto artzallac  
 badira lapurrac  
 iruntzico ditue  
 azur ta mamiñac.*

## OGUETABATCARREN IPUIÑA

*Ezcongueia ta emaztegui biak, gaztea ta zar-nastea*

Ez zar ta ez gazte  
 bere ulle erdia  
 zuritzen asia  
 ta nonbaitz bere  
 gogoeta asco igaro ondoan

guizon cicotz-to bati yarri yacon buruan  
 bêvala nos edo nos ezcontzec<sup>o</sup> ordua.  
 Gure ezcongueiac bêvan dirua,  
 bai cea, bai acia;  
 ta egui eguia  
 ondo costaric  
 baldara batua.  
 Berac azkenic  
 bêvan emasteguei naicoa? (*sic*).  
 Gustiac nai cirean azaz,  
 edo obeto aren poltzaz.  
 Cueure guizona agaitic  
 etzan larritzen:  
 Arinegui gauza onic  
 ez da eguiten.  
 Nescatilla biri cirudian  
 itzi eutsela biotza artuten;  
 ez agaitic guztiz yavetuten.  
 Bada oraindo adin onean tzan:  
 bestea ia  
 galtzen asia;  
 baya apaiñez eukezana estalduae  
 denporeac ostu eutsazan urteac.  
 Nescatilla aec zoraturic  
 euken guizon au guztizco,  
 bacoachac izatea gaitic  
 altzoan: ta biac ulle-ustuteco  
 yolastaca leguez errotic  
 gaztênac zuri guztiac  
 ta zarrac ulle baltzac  
 eurrez ideki eutsezan,  
 orren ando ece calboturic  
 guerora imin even.  
 Amodioak ez evan guztiz itsutu  
 cekento tzar ori: zanean contutu,  
 esan eutsen andragueiai berac.  
 «Ezker milla, nescato ederrac:  
 benetan dan-au nozue mutildu  
 baya orregaz ez tot ecer galdu.  
 Ondo da, iracurle maitea,  
 cer direan nescac yakitea.  
*Ascotan bazabiltz*

*aecaz chanchetan  
gorputz-arimacondasunac  
kenduco deutsuez danac*

---

## OGUETABIGARREN IPUIÑA

*Bela gaiskin chikia, otso gaiskilla andia ta guizona.*

Astoac bizcar azurrean  
eucan zori charrez zauria.  
Gauza zan, bai, negargarria  
beleac ekin eutsanean.  
Alper osticadea  
t<sup>a</sup> arrantza tzarrac eguitea  
Asta-zaina (barrez) gozozco  
ta belea yaten gogozco.  
¡Asto errucarria!  
¿Non yagoc eure errukia?  
Icusten egoan otsoa

ce larri ebilen astoa:  
astazainac errukirik ez  
ta belea ushatu nai ez.  
«zori gaistocoa ni  
¡escupean artu banagui!  
Au diño otsoak ez deunguero  
ce ondo ausmartu ezkerro.  
Guizon gaistaguin otsotua  
dagoz ipuiñean sartuac  
beti bici bear icaraz  
ez gozoz ta bai bake charraz.

---

## IPUIN BERBERA

*Gauza batzuetan cerbait bestera eguinda*

*Bela calteguin chikina, otso eraillea ta guizona.*

Asto burutzarrac bizcarrean  
eucan alan bearrez zuloa:  
ta zan negar eraguitecoa  
beleac an eragoioinean  
Alper osticadac.  
ta alper tzirean arrantzacac:  
yabea beguira barre zantzo,  
ta belea yaten gogo gogoz.  
Adi dago lurpetic otsoa

cein estu darabillen astoa:  
yabea bertan ero eroric  
ta yaleari ez *ken* bat *ortic*.  
«¡Zorigaldua neu  
diño, ainbeste eguingo baneu!  
Bai: eguia, otso yave arec  
ori icusita ilgo induket.»  
Calteguin chikia eroan diteke  
ilzalla donguea ken beiteke.

---

## OGUETA IRUGARREN IPUIÑA

*Asto nekeac amaitua ta ila, ta zaldi biotz gogorra.*

Asta emeac pisu gueiegui  
eroian bizcar ganean  
t<sup>a</sup> albaintinkaca yoian bideti  
arnasa ecin betean,  
emen guelditu  
guero iguitu,  
charto batean bestean.  
Beragaz yoian zalditoari  
dirautsa onez ta lotsaz:  
¡Ay zaldi laztan, lagun zamari!  
il bear yoat pisuaz,  
yaucât larregui  
ecin nayeguic  
nic onen zam<sup>a</sup> astunagaz.  
Arren ta arren, zaldi maitea,  
euc izan nizaz erruki.  
arindu! guidac ene carguea,  
eutsiric euc atal bati.  
Eguiten beustac  
emongo deuat  
eskerric asco, ó zaldi.  
Zaldi musturrac purrustu tzarrac  
eguinic ¡ay! ta entzun ez,  
buruguin onac lagunguin charrac  
dirautsa orri destañez:  
¡Asto ta asto!  
¡Gaisto ta gaisto!  
irea beti: besteric ez.»

«Gogora yoan gura enduken  
pisuchu iski bategaz!  
bestec eztanda ta... bayeguiken  
ez deuna deus bestenagaz.  
Ez yonat ecer;  
eguin emen ler:  
il aldin or nekeagaz»  
Alango baten astoak uco  
eguin dau, eguin, bidean.  
Yaveac arre: yaveac isho:  
yaveac yo: t<sup>a</sup> alperrean  
bertanche yausi  
arnazac asi  
astoa, il da <sup>a</sup>zkenean.  
Asto bagaric bere burua  
yaveac icusi, eta  
zaldi mushari aren pisua  
emon deutso bizkarrera:  
ganetic dala  
aren azala,  
au eratzita, kendua.  
Onda eguinic, ondo bai ondo,  
saldi biotz bagacoa.  
Alanche bada yacoc emongo  
doanari eu lacoa  
¡ay, bai, gogorra!  
ire sendorra,  
ta bestêna eutsaz, ta öa.»

## OGUETA LAUGARREN IPUIÑA

*Leoi-artz auska indarguetuac, ta lukia*

Leoiak eta artzac bein aurkitu evên  
mendian barruan ardichu galdu bat  
deslai ebilena, baita gura leukên

biac, bacoachac beretzat.  
 Artza nonbait egon lecuz urrerago  
 ta leoi yaunari lotsa yagon bagan  
 Ardi gaishoari esetsi lenago  
 deutso, il ta bota, bertan.  
 Leoi uzuari ori dacusala  
 su goritan sartu, ta orroi eguinic  
 basterrac guztiac bêra dacazala  
 garra dario danetic.  
 Estau onen arin oñastarri batec  
 batetic bestera bidea eguiten  
 ta il yo davena, ceinda leoi orrec  
 deutsan artzari ekiten.  
 Artz bildurgarriac lazturic ulleac  
 Aõa zabal ta erpac lusaturic,  
 arpegui emoten deutso, celan achac  
 olatuai gogorturic.  
 Batac gogor gogor ta gogor besteac  
 erpaca bat onec, besteac erpaca:  
 biac ortz-aguinca, indar-putzac biac  
 altar apurtu guraca  
 ¡Ay ango orroiac ta desgarrío!  
 ¡Ango burruc-auscac, ta apurtzea altar!  
 Ez etzirudian ezpada trumoia  
 edo lurra zala dar-dar.  
 Onelan luzaro ibili cirean,  
 aric etal danoc ebai indar-ustu  
 ta nekeen nekez echunic lurrean  
 bioc cirean gueratu.  
 Guelditu ezkeró aric pusca baten  
 aceri yakina dator ara laster  
 ta bien aurrean ardia dau yaten:  
 eurac barriz ezin ecer.  
 ¡Oy ta ceinbat bider aucilari charrai  
 au yazoten yaken! Diruac utzitu:  
 encon nastariai eta letraduai  
 ecer-ecéan guelditu.

---

## OGUETA BOSCARREN IPUIÑA

*Catamotz uzu caiolatua, ta chacur etse-yagola ascataua*

Caiola burdintsuan  
 catamotz uzua dago sarturic  
 dacusala chacur bat pozturic  
 cate bagaric, parlantzuan.  
 Gora-ber<sup>a</sup> au icusi evanean  
 sartu zan catamotza aserrean,  
 cerua besoz nai dau arrapatu,  
 eta eubazan burdiñac urratu  
 Diño hada deadarrez chacurrari deadarrez  
 biraoz ta araoz ta asarrez } dirautso baita su gori asarrez  
 ¿Celan ain itzal-arina n'izanic  
 nayaukec emen estu ta catigu?  
 Niretzat az, chacur, gauz'ez, catibu,  
 ez doana ez erparic ez zanic.  
 Alan bere jire aleguerea!  
 ¡Ara t<sup>a</sup> onaco eure bicitzea!  
 Ni barriz atsacabez  
 burdina artean emen naibaguez... —  
 — «Onda doc, diño chacurac (parcatu)  
 egotea eu orlan, ni ascatu.  
 Az erpatsua, ta odol-zalea:  
 neu guizon echeen yagontzallea.  
 t<sup>a</sup>ezpaintz alangoa  
 ez natzac ni eu bashen mistoa  
 Euc sartzen deutsec guztiai bildurra:  
 eguia doc au eta ez guzurra.»  
 ¿Cetacoira indar-putzac lurrean  
 izango baira norberen caltean?  
 ¿Ceinbat obe bigunchu izatea  
 ta biotz errukiorra aguertzea?  
 ¿Ez dozu nai cateric?  
 Ez bada zuc ños eguin calteric.

(Iarraituko da).